



## **KULTUR EKITALDI BAT ANTOLATZEKO PROTOKOLOA**

Behin-behineko proposamena

**Eusko ikaskuntza**

### **SARRERA**

Eusko Ikaskuntzako “Eskubide kulturalak: parte-hartze eta gobernanzarako” proiektuak kultur ekitaldi bat antolatzekeko protokolo bat diseinatzekeo prozesua abian jarri du, eskubide kulturalen markoa ardatz hartuta. Protokoloaren helburua kultur kudeaketaren prozedura eta praktika on zenbait ikusgai egitea da, betiere eskubide kulturaletan urratsak egite aldera, parte hartzea sustatze aldera eta lan-harremanak zein kudeaketa-praktikak hobetze aldera. Protokoloa lau zutabetan bereizi dugu: (1) Hartu-emanak sortzaile edo kulturgileekin; (2) Parte-hartzearen kudeaketa; (3) Gobernantza eta lankidetzak; (4) Komunikazioa.

**Oharra.** Protokoloan zehazturikoak eta proposaturikoak kontuan hartzekeo eta baloratzeko aldeak dira, bete beharrekeo neurriak baino. Helburua da ekitaldi bat antolatzerakoan horrelakoak gogoan izatea eta neurtzea, nahiz eta beti dena ez dagoen antolatzailearen esku, eta, askotan, nahi den guztia ere egitea ezinezkoa den. Protokoloak ez luke izan beharkeo kultur ekitaldiak antolatzekeo traba, laguntza izan behar du antolatzaileak hainbat puntu kontuan har ditzan gauzak txukun egitekeo eta alde guztien beharrak eta interesak kontuan hartzekeo.

### **1. HARTU-EMANAK SORTZAILE edo KULTURGILEEKIN**

Sarri kultur jarduna ez da lan-jarduntzat hartzen, edota kultur kudeaketan ez da lan-izaera hori kontuan hartzen. Nahiz eta kultur gileen eta sortzaileen lan-baldintzak hobetzekeo urrats ugari erakunde publikoen eta kultur politika publikoen erabakietatik eratorri beharkeo diren (ogasuneko baldintzak, gutxienekeo ordainsariak, kultur teknikarien baldintzak...) Kultur kudeaketaren eta kultur bitartekaritzaren esparruan izan badira berrikusi beharrekeo praktika zein jardun ugari sortzaile zein kultur gileen lan-baldintzak hobetzekeo urratsak izan daitezkeenak, kulturaren funtzioak eta praktikak berrikustetik datozenak. Bestalde, kultur dinamika batzuetan (beste lan-eremu batzuetan gertatu bezala), hartu-emanak zaintzekeo eta prozedurak zaintzekeo premia dago, lan-eremu bizigarriago eta horizontalagoak eraikitze aldera.

### **Helburuak**

Zutabe honen helburuak:

- Kultur ekitaldiak antolatzean kultura lan-jardun modura kontuan hartzearen kontzientzia sustatzea, kultur gileen lan-baldintzak eta praktikak hobetze aldera.
- Kultur ekitaldiak antolatzean elkar zaintzan eta horizontaltasunean oinarrituriko kudeaketa ereduak sustatzea.



- Kultur ekitaldiak antolatzean ekonomia sozial eta solidarioaren oinarriak ardatz hartzea: lan-baldintzak zaintzea, lan-arduren eta ordainsarien banaketa orekatua, gardentasuna eta autoebaluazioa.
- Kultur ekitaldiak antolatzean ikuspegi komunitarioa kontuan hartzea: kultur praktikaren moldea, sortzaileen lan-dinamika, kultur balioak...

### **Proposamenak**

KULTURGILEEKIN HARREMANETAN JARRI AURRETIK, GOGOETA PROZESU HAU EGITEA:

- **Ekitaldiaren helburu kulturala.** Helburua zehaztu (xede pertsonen profila, nolakotasun kulturala, irismena...), betiere kulturaren funtzio komunitarioa ardatz hartuta.
- **Sortzaileen edo kulturgileen mapeoa.** Helburu kultural hori garatzeko eragileen bilaketa-lana (kulturgintzako sarearekin kontrastatu).
- **Baldintza egokiak.** Helburu kultural hori baldintza egokienetan garatzeko honako alderdi hauetan arreta jartzea komeni da: ekosistema – testuingurua – espazioa – baliabideak.
- **Askotariko sortzaileri eta herritarri ahotsa eta espazioa eman.** Programazioak eta kultur ekitaldiak antolatzean aldagai sozialen (hizkuntza, generoa, adina, klasea, arraza, tokikotasuna...) arteko orekak zein desorekak aztertzea komeni da, betiere zapalkuntza egoera bizi duten kolektiboek espazioak zein bideak zabaltzeko aukerak ugarituz.
- **Jarrera diskriminatzaileak saihestu.** Sortzaile edo kultur taldeak inolako salaketa matxistarik, arrazistarik ez dutela ziurtatu, edo bestelako diskriminazioekin loturarik ez dutela ziurtatu.
- **Giza eskubideen bermea.** Kontratatuko diren enpresak edo elkarteak giza eskubideak bermatzen dituztela ziurtatu.
- **Baliabide material eta ekonomikoak bermatu.** Kultur ekitaldia baldintza egokietan eta duinetan egiteko nahikoa baliabiderik badela egiaztatzea (sektorerara egokituriko ordainsari duinak).

EKITALDIAREN KONTRATAZIO-PROZESUAN:

- **Lan-baldintzen berri eman lehen komunikaziotik.** Lan-proposamena egitean lan-baldintzen berri xehe-xehe eman behar da (epeak eta iraupena, ordainsariak, ekipamendua, espazioaren aukerak, kontratazio-modua...), sortzaileak informazio guztia eskura izanda har dezan erabakia.
- **Ordainketa-prozeduraren berri eman.** Sortzaileei jakinarazi noiz eta nola ordainduko zaien.
- **Ekitaldiaren helburuaren berri eman.** Kultur ekitaldiaren programazio helburuekin eta testuinguruarekin bat egiten duen ala ez jakiteko, eta testuinguruan kokatu ahal izateko, ekitaldiaren helburua jakinarazi.
- **Kulturgilearen ekarpena balioetsi.** Sortzaile horri edo horiei adierazi zergatik den interesgarri euren parte-hartzea, zergatik egin dezaketen



ekarpen esanguratsua testuinguru horretan.

- **Espazioa.** Sortzaileei espazioaren eta kokapenaren xehetasunak eman (tamaina, argiztapena, baliabideak...), eta espazioa antolatzeko moduen aukerak elkarrekin pentsatu eta adostu.
- **Eguna, eta ordua.** Ekitaldiak xede dituen pertsonen eta hauen beharren arabera ordutegi eta leku batean pentsatu, eta egutegi hori sortzaileen aukerak zein premiak ere kontuan hartuta adostu. Iraupena ere sortzaileekin kontrastatu.
- **Sortzaileei euren eskariez galde egin.** Galdetu zer baliabide beharko diren, baita sortzaileak emanaldian izan ditzakeen eskakizun berezietan ere (isiltasuna, mugimendua, zarata...) eta pentsatu horiek zaintzeko prozedura.
- **Egile eta irudi eskubideak.** Irudiak, audioak edo bestelako grabazioak egiteko asmorik egonez gero lehenbailehen zehatz-mehatz azaldu zertarako erabiliko diren, eta baimenak eskatu zein kudeatu.
- **Zabalkunde-moduak hitzartu.** Ekitaldiaren zabalkundearen berri emateko prozedurak eta bitartekoak adostu (testua, aurkezpena, argazkia...), eta kulturgileak bere burua eta ekitaldia nola aurkeztu nahi duen adostu.
- **Zaintza-lanak aintzat hartu.** Sortzaileen zaintza lanei (bereak zein bere ardurapeko pertsonenak) nola erantzun ahal zaien pentsatu, eta adostu sortzailearekin.

#### EKITALDIA GAUZATZEAN:

- **Aparkalekua.** Saiatu sortzailearentzat aparkaleku bat gordetzen, edo, non aparkatu dezan jakinarazten.
- **Harrera.** Bermatu sortzaile/taldea bertaratzean norbait izango dutela harrera egiteko. Ezin bada inor bertaratu, bermatu sortzailearen beharrak asetzeko modua, aldezturik adosturiko prozeduren bitartez.

#### EKITALDIAREN OSTEAN:

- **Ahalik eta azkarren itxi alderdi administratiboa eta ordainketa.**
- **Eskerrak eman.** Sortzaileari eta kultur ekitaldiaren ondoren jasotako feedbackaren berri eman, eskerrak ematearekin batera.
- **Ebaluazioa.** Kultur ekitaldiaren ebaluazioa egin eta eragin soziala jaso.

## **2. PARTE HARTZEAREN KUDEAKETA**

---

Kultur ekitaldiak antolatzeko protokolo honen helburua eskubide kulturalen perspektiban oinarritutako politika publikoak diseinatzea da, eta, Euskal Herria zein euskal herritarrek kontuan hartuko dituzten neurriak proposatzea. Beraz, parte hartzea, zein parte hartzaileak garrantzia handia izango dute kultur protokolo honetan. Jarraian aipatzen diren neurri hauek herritarren bultzada artikulatu nahi du, oinarri komunitarioa duten proiektuak sustatu eta kultur

programazio publikoa deszentralizatu kultura berdintasun eta kohesio sozialerako leku izan dadin. Protokolo honen abiapuntua da kulturaren parte hartzean desberdintasunak eta botere-harremanak sortzen dituzten kategoriak daudela - hizkuntza, klase-ekonomikoa, generoa...- eta horiek kontuan hartu behar direla gizartearen oinarri demokratikoa eskubide kulturalen bidez garatu nahi bada.

### **Helburuak**

Zutabe honen helburuak:

- Tokiko kultura sustatzea, zentralitate berriak dituen, sarbidea erraztu eta askotariko ekoizpenak bultzatuko dituen.
- Leku eta garaira egokitutako proiektuak eta edukiak lantzea, tokiko kultura-ekipamenduak (kultur-etxeak, liburutegiak, emakumeen-etxeak, etab.).
- Balio publikoa duten kultura-praktika komunitarioak aitortu, babestu eta bultzatuko dituzten lan-esparruak sortzea.
- Herritar guztiek beren jarduerak garatu ahal izatea bermatzea, gaitasun sortzailea eta nortasun kulturala lantzeko espazioak, baliabideak eta ezagutza erraztea.
- Hiri-inpaktua duten lurralde-proiektuak sustatzea, auzoetan egindako ekimenak babestea eta ikusaraztea.

### **Proposamenak**

- **Norentzat.** Kultur ekitaldia antolatzeko pentsatu nori zuzendu kategorian hauen arabera: hizkuntza, generoa, adina, klasea, arraza... Urteko programazio kulturalan kategorian bakoitzari zuzendutako kultur eskaintza zein izan den baloratu. Halaber, aurreikusten den publikoarekin eta herritar profilarekin zer-nolako ekitaldiak nahi dituen kontrastatu.
- **Tokikotasuna.** Lurraldetasunari eta tokikotasunari erreparatu: hurbileko artista eta eragile kulturalak lehenetsi programazioa egiterako garaian. Parte hartzea sustatu ez ezik, jasangarritasunaren ikuspuntutik ere garrantzitsua da ikuspegi hau lantzea.
- **Irigarritasuna.** Behar bereziak dituzten pertsonak bertarako modua egin, eta, garraio publikoan bertarako aukera eskaini edo adierazi.
- **Ekipamendua.** Publikoaren aniztasuna kontuan hartu kultur ekitaldiaren hartzaile moduan. Ahalik eta egoteko modu erosoan jarri adineko pertsona, haur zein pertsona lodientzat. Komun irigarri eta ez bitarren alde egin.
- **Markoa.** Publikoari aditzera eman kultur eskubideak bermatuko dituen gune batean daudela. Horretarako, kultur ekitaldiaren hasiera baliatu daiteke.
- **Erasoen aurkako protokoloa.** Kultur ekitaldia antolatzerako erasoen aurrean jarduteko protokoloa izan, eta komunikatu bertaratutakoei zertan datzan.



- **Zaintza.** Zaintza beharrei erantzuteko moduetan pentsatu eta jakinarazi, publikoaren zein bestelako parte hartzaileek zaintza lanak badituzte, kultur ekitaldian egoteko aukera izan dezaten.
- **Hizkuntza.** Pertsona ororen hizkuntza eskubideak bermatu. Itzultzaileak edo xuxurlariak aukera bat izan daitezke.

### **3. GOBERNANTZA ETA LANKIDETZA**

---

Ekitaldi bat antolatzen denean, helburua izaten da ahalik eta jende gehien hurbiltzea bertara, eta hori lortzeko komeni da parte hartzeko moduetan ere hasieratik pentsatzea. Ekitaldia beste eragile batzuekin edo interesa izan dezakeen jendearekin batera landu eta antolatuz gero, eremu zabalagora iristea, adibidez. Horrekin batera, antolatu nahi den ekitaldirako baliabideak behar badira (egoitza, azpiegiturak, dirua...), beste eragile batzuekin lankidetzak erraz dezake horiek eskuratzea.

#### **Helburuak**

Zutabe honen helburuak:

- Kultur politiken eta kultur kudeaketaren inguruko prozesuetan eta erabakietan parte hartzeko eskubidean urratsak egitea.
- Kultur eskubideen aldeko kontzientzia sustatzea kultur eragile publiko, pribatu eta zibilen artean, betiere herritar zaugarrienengan arreta jarrita.

#### **Proposamenak**

- **Programazioa adosteko prozesuan parte-hartzea sustatu.** Herritarrek eta kultur eragileek kultur programazioa osatzeko ekarpenak zein proposamenak egiteko prozeduraren bat ezarri.
  - Pentsatu beste eragileren batekin elkarlanean egin daitekeen.
  - Inguruko jendearekin partekatu eta interesa izan dezaketenekin batera pentsatu ekitaldia.
- **Parte-hartze kulturala.** Ekitaldi kulturean parte hartzea sustatzeko bideak pentsatu, edota parte hartzea sustatzen duten ekitaldi kulturalak programatu. Pentsatu aurretik egin nahi den ekitaldiak parte hartzeko zein aukera emango dituen.
- **Sarbide-mota.** Ekitaldirako sarrerak ordainduko diren edo ez pentsatu. Ordainduko badira, zergatik, nola eta kuota eta estrategia ezberdinak sortu.
  - Ordainpekoa izan edo doakoa izan, batzuen parte hartzea baldintza dezake eta hori ere kontuan hartu behar da.
  - Ordainpekoa izan behar badu, aztertu aukerak dauden baliabide gutxienezkoak, sarrera merkeago kobratzeko.
- **Politikarekiko burujabetza bermatu kultur ekitaldien antolaketan.** Ekitaldi bat egiterako orduan, askotan behar izaten da laguntza ekonomikoa



eta horretarako instituzioetara jotzen da maiz. Kasu horretan bi aukera izan daitezke: 1) Lankidetzan antolatutako ekitaldia izatea, eta bakoitzak bere parte-hartzea, adostuta antolatzaile guztien artean bakoitzak zein paper jokatuko duen. 2) Instituzioetatik dirulaguntza jasotzea besterik gabe. Kasu horretan instituzioak ez du zertan baldintzatu ekitaldiaren izaera, bere egitekoa da baliabideak ematea zehazten diren baldintzen baitan, baina horrek ez du behartzen antolatzailea instituzio horren esanera aritzera edo.

- **Ingurumenaren jasangarritasuna.** Energia erabilera zaintzea, ahalik eta kutsadura txikiena eragitea edota hondakinak behar bezala jasotzea denon eginkizuna da, ekitaldi bat antolatzerakoan ere kontuan hartu beharrekoa:
  - Kontsumo energetikoan arreta jarri.
  - Beharrezkoa den energia soilik erabili, eta, ahal den gutxien erabili.
  - Sortu daitezkeen hondakinetan arreta jarri.
  - Sortu daitekeen soinu kutsadurari erantzun bat eman.

#### **4. KOMUNIKAZIOA**

---

Jendaurreko ekitaldi batean ahalik eta herritar gehienek sarbidea izan dezaten, ekimenaren hedapen eraginkorra premiazkoa da (prentsa, instituzioak, kultur erakundeak, herriko elkarte ez-formalak).

#### **Helburuak**

Zutabe honen helburuak:

- Kultur programazioaren eta kultur dinamiken inguruko informazioa jasotzeko eskubidean urratsak egitea.
- Kultur ekitaldietan askotariko herritarren sarbidea errazteko edota areagotzeko komunikazio-estrategiak diseinatzea.

#### **Proposamenak**

- **Komunikazio plana.** Ekitaldia diseinatzerakoan komunikazio plan bat diseinatu behar da.
- **Kartelak.** Gauza sinplea dirudi, baina ez da nahikoa norbaitek irudi bat egitea. Kartela egiten hasi aurretik gauza anitz pentsatu behar da:
  - Hizkuntza: zein hizkuntza erabili aurreikusi behar da. Euskarari lehentasuna ematea euskararen aldeko urratsa da, hura baita gure herrian hizkuntza gutxitua. Segun eta non ari garen eta bertan beste kultura batzuetako hiztunak baldin badaude eta bereziki erakarri nahi badira, beste hizkuntzaren bat ere erabiltzea komeni den aztertu.
  - Kontzeptua eta irudia: Estereotipoak ahal beste ekidin eta ziurtatu ez dela bazterketarik eragingo genero, arraza edo beste edozein izaera kontuan hartuta.



- **Arrakala digitala arintzeko estrategiak.** Maiz jotzen da gaur egun sarrerak edo gonbidapenak mugikor eta Internet bidez saldu edo zabaltzera, baina bada tresna horietara behar bezala egokitzen ez denik, edo izan daiteke baliabide faltagatik sarbidea mugatu duenik. Komeni da aurre aurreko bideak ere izatea.
- **Hezkuntza eta gizarte gunetan hedapen berezia egin.** Ekitaldian zaingo diren sortzaileen lanaren berri zabaltzeko aukera zain daiteke antolatuko den ekitaldia. Ekitaldiaren aitzakian beste ekimen batzuk ere bidera daitezke hura ezagutzera emateko, haren lanaren berri zabalgoa izatea. Adibide batzuk:
  - Musikarien kasuan, tabernetan, herriko irratian —balego— haien musika entzuteko bideak egiten saiatu.
  - Idazleen kasua, liburutegiak haren liburuak erakuts ditzan saiatu.
  - Erakusketa bat materialarekin ekitaldia egingo den eremu inguruan.
  - ...
- **Etorri berrienganako ekimen bereziak.** Gure herrietan gero eta gehiago dira beste kulturetatik etorri berri direnak eta ez dira beti herriko bizitzara hurbiltzen. Interesantea da haiei ere bidea egitea Euskal Herriko kultura ezagutzen joan daitezen eta bertan parte har dezaten —baita hemengo herrietan haien kulturaren berri izatea ere—, eta horretarako egokia da haiengana informazioa nola zabaldu pentsatzea.



Protokoloa aztertu, eta adierazi hemen zure ekarpenak:

ZALANTZAK:

GEHITZEKOAK:

ÑABARTZEKOAK: